# BEKA DEIALDIA

## HH, LH ETA DBHRAKO ARGIBIDEAK

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak* ***2020/2021 ikasturterako beka deialdia*** *jarri du abian. Eskaerak on-line, internet bidez, bideratzeko aukera eskainiko du* ***azaroaren 9*** *arte.*

**deialdia kontsultatu**

### ESKAEREN BERRESPENAK

***2019/20 ikasturtean beka eskatu zuten familia guztiek****, beka eskuratu zutenek zein lortu ez zutenek,* ***eskaera automatikoki berresteko aukera*** *dute.*

*Horretarako 2019/20ko beka-eskatzaile guztiei* ***eskaera proposamen bat banatuko zaie Ikastolan*** *eta, bertoko datuak zuzenak direla behin egiaztatuta, eskaera internet bidez baieztatu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzako web orrian, proposamenean bertan* ***jasoko duten kodea erabilita****.*

**beka sinatu**

### ESKAERA BERRIAK IKASTOLAN NOLA BIDERATU

*Ikastolako idazkaritzan norberak on-line bideratu baina elektronikoki sinatu ez diren eskaerak sinatzeko aukera emango dugu, bai eta eskaera osoa ere Ikastolatik bideratzeko. Horretarako* ***aurretiko hitzordua*** *eskatu beharko da* ***94 672 67 37*** *telefonoan. Harrera ordutegia 09:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 16:30era izango da.*

*Eskaera guztietan eskaera egiten duen pertsonaren NANaren (aita, ama, tutorea...) eta familia liburuaren kopiak aurkeztu beharko dira. Horrez gain, Arabatik kanpo tributatuz gero, 2019 urteko errenta aitorpenaren kopia ere aurkeztu beharko da. Bestetik, egoeraren arabera, dokumentu osagarriak eskatuko dira: banaketa edo dibortzio kasuetan sententzia, hitzarmen erregulatzailea, pentsioen ziurtagiriak, ikaslearen errolda agiria... ezgaitasunen agiriak, e.a.*

*Familiak COVID-19ren ondorioz ABEErik edo bestelako egoerarik jasan izan badu (langabezia, autonomoen jarduera etetea...) , egoera horren egiaztagiria aurkeztu beharko da.*

### LAUDIO TXIKI

*Haur Hezkuntza 1. zikloko ikasleek laguntza mota ezberdina eskura dezakete matrikulatuta dauden mailaren arabera.*

***0 eta 1 urte****ko haurrek, 2019an eta 2020an jaiotakoek, kuotarako laguntza eskura dezakete, hilean gehienez 90 eurokoa.*

***2 urte****ko haurrek, 2018an jaiotakoek, ikasketak ordaintzeko laguntza, 200€, eta jantokirako laguntza, gehienez 712€, eskura dezakete.*

*Ziklo honetarako HH-LH-DBHrako* ***1. errenta muga*** *egiaztatu behar da kasu guztietan.*

### HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA

***3, 4 eta 5 urte****ko ikasleek, 2017, 2016 edo 2015ean jaiotakoek,* ***2. errenta muga*** *egiaztatu beharko dute. Ziklo honetan* ***ikasmaterialerako*** *laguntza, 78€koa da eta* ***jantoki****ko laguntza, gehienez 712€koa.*

### LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH

***LH eta DBH*** *etapatan* ***3. errenta muga*** *egiaztatu behar da* ***ikasmaterialarako*** *laguntza eskuratzeko, 117€ LHn eta 159€ DBHn eta* ***2. errenta muga jantokirako,*** *gehienez 712€.*

### BALDINTZA EKONOMIKOAK

HH-LH-DBH ETAPAK

| familia kide kopurua | 1. errenta muga | 2. errenta muga | 3. errenta muga |
|---|---|---|---|
| 1 | 8.143 | 10.668 | 14.826 |
| 2 | 13.350 | 17.377 | 25.308 |
| 3 | 17.567 | 22.820 | 34.352 |
| 4 | 20.201 | 27.069 | 40.796 |
| 5 | 23.232 | 30.717 | 45.598 |
| 6 | 26.717 | 34.241 | 49.224 |
| 7 | 30.724 | 37.576 | 52.810 |

familia errentaren kalkulua:
ZERGA OINARRI OROKORRA
+AURREZKIAREN ZERGA OINARRIA

**eskaera egin**

LAUDIO ikastola

*Euskal Herrian*
*Gure Hezkuntza*
*LOMCErik Ez*

2020/10/09

# BECAS

## INFORMACIÓN PARA INFANTIL, PRIMARIA Y ESO

*El Departamento de Educación del Gobierno Vasco ha puesto en marcha la convocatoria de* ***becas para el curso 2020/21.*** *El plazo para realizar las solicitudes on-line, por internet, finalizará el* ***9 de noviembre****.*

consultar convocatoria

### RENOVACIÓN DE SOLICITUDES

***Todas las familias que solicitaron beca en el curso 2019/20 pueden renovar la solicitud de manera automática*** *independientemente de si recibieron la beca o no.*

*Para ello todas las personas solicitantes del curso 2019/20* ***recibirán una propuesta de solicitud en la Ikastola.*** *Una vez comprobados los datos de la misma, podrán confirmarla por internet en la web del Gobierno Vasco utilizando el* ***código*** *que se les porpocionará en la propuesta.*

firmar beca

### PRESENTACIÓN DE NUEVAS SOLICITUDES EN LA IKASTOLA

*En la secretaría de la Ikastola se dará opción a firmar las solicitudes que cada cual realice on-line pero que no se hayan firmado de forma digital, así como a realizar la solicitud completa. Para ello se deberá solicitar* ***cita previa en el teléfono 94 672 67 37.*** *El horario de atención será de 09:00 a 12:00 y de 15:00 a 16:30.*

*Todas las solicitudes deberán adjuntar copias del DNI de la persona solicitante (padre, madre o tutora legal) y del libro de familia. Además quienes no tributen en Araba deberán adjuntar copia de la declaración de la renta de 2019. Por otra parte, según la situación, se solicitará documentación complementaria: en caso de separación o divorcio, sentencia, convenio regulador, certificados de pensiones, empadronamiento de la alumna o alumno... certificados de minusvalías, etc.*

*Si debido a la COVID-19 la familia ha sufrido las consecuendias de un ERTE o situación similar (paro, cese de actividad de autónomos...) deberá presentar documentación que lo acredite.*

### LAUDIO TXIKI

*El alumnado del 1er ciclo de Educación Infantil opta a ayudas diferentes según el nivel en que se encuentre matriculado.*

***En 0 y 1 año****, alumnado nacido en 2019 y 2020, optarán a la ayuda para cuota, de 90 euros mensuales como máximo.*

*El alumnado de* ***2 años****, nacido en 2018, optará a la ayuda para enseñanza, 200€, y a la ayuda para comedor de 712€ máximo.*

*En este ciclo deberá acreditarse el* ***umbral 1 de renta*** *de Infantil, Primaria y ESO.*

### 2º CICLO DE EDUCACIÓN INFANTIL

*El alumnado de* ***3, 4 y 5 años****, nacido los años 2017, 2016 y 2015, deberá acreditar el* ***umbral 2*** *tanto para la ayuda de material escolar, 78€, como para el comedor, 712€ máximo.*

### EDUCACIÓN PRIMARIA Y ESO

*En* ***Primaria y ESO*** *se deberán acreditar el* ***umbral 3*** *de renta para el* ***material escolar****, 117€ Primaria y 159€ ESO, y el* ***umbral 2*** *para el* ***comedor****, 712€.*

### REQUISITOS ECONÓMICOS

ETAPAS INFANTIL, PRIMARIA Y ESO

| nº total de familiares | Umbral 1 | Umbral 2 | Umbral 3 |
|---|---|---|---|
| 1 | 8.143 | 10.668 | 14.826 |
| 2 | 13.350 | 17.377 | 25.308 |
| 3 | 17.567 | 22.820 | 34.352 |
| 4 | 20.201 | 27.069 | 40.796 |
| 5 | 23.232 | 30.717 | 45.598 |
| 6 | 26.717 | 34.241 | 49.224 |
| 7 | 30.724 | 37.576 | 52.810 |

cáculo de la renta familiar:

BASE IMPONIBLE GENERAL
+BASE IMPONIBLE DE AHORRO
-CUOTA LÍQUIDA

eskaera egin